Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

3068

EBAZPENA, 2009ko maiatzaren 5ekoa, Gizarte Ongizateko zuzendariarena, Euskadiko Autonomia Erkidegoko haur eskoletan eskolaratutako hiru urtetik beherako haurrak dituzten familien babeserako laguntzak emateko Balorazio Batzordeko kideak izendatzen dituena.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2009ko otsailaren 25eko Aginduak (2009ko martxoaren 6ko EHAA) Euskadiko Autonomia Erkidegoko haur eskoletan eskolaratutako hiru urtetik beherako haurrak dituzten familien babeserako laguntzak ematea arautu eta horien deialdia egin du.

Aipatutako aginduaren 18. artikuluan xedatutakoaren arabera, Balorazio Batzorde bati dagokio aurkeztutako eskaerak aztertu eta balioestea eta Gizarte Ongizateko zuzendariari laguntza deialdiaren Ebazpen Proposamena aurkeztea.

Halaber, aipatutako 18. artikuluak xedatutakoaren arabera Balorazio Batzordea Ongizate Zuzendaritzako hiru funtzionarioz osatuko da eta Gizarte Ongizateko zuzendariari dagokio batzordekideak izendatzea, baita horien artean batzordeburua eta idazkaria izendatzea.

Ondorioz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Honako pertsona hauek izendatzea diru-laguntzei buruzko ebazpen-proposamena emango duen Balorazio Batzordeko kide izateko:

– Raul Velasco López jauna, Gizarte Ongizateko Zuzendaritzako teknikaria, batzordeburu lanak egingo dituena.

– Iñaki Basauri Bengoa jauna, Gizarte Ongizateko aholkulari juridikoa, idazkari-lanak egingo dituena.

– Unai Bikandi Markaida jauna, Gizarte Ongizateko Zuzendaritzako teknikaria.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko maiatzaren 5a.

Gizarte Ongizateko zuzendaria,
M. ELENA AYARZA ELORRIAGA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

3068

RESOLUCIÓN de 5 de mayo de 2009, de la Directora de Bienestar Social, por la que se nombra a los miembros de la Comisión de Valoración para la concesión de ayudas para el apoyo a las familias con niños y niñas menores de tres años escolarizados en escuelas infantiles de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

La Orden de 25 de febrero de 2009 (BOPV de 6 de marzo de 2009), del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales regula y convoca la concesión de ayudas para el apoyo a las familias con niños y niñas menores de tres años escolarizados en escuelas infantiles de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El artículo 18 de esta Orden, dispone que corresponderá a una Comisión de Valoración el examen y evaluación de las solicitudes presentadas y elevar la pertinente Propuesta de Resolución de la convocatoria de ayudas a la Directora de Bienestar Social.

De conformidad con lo dispuesto por el citado artículo 18 de esta Orden, dicha Comisión de Valoración estará integrada por tres personas funcionarias adscritas a la Dirección de Bienestar Social y nombradas por la Directora, que, a su vez, designará de entre las mismas un/una presidente y un/una secretario/a.

En su virtud,

RESUELVO:

Primero.– Nombrar a las siguientes personas como miembros de la Comisión de Valoración encargada de formular la Propuesta de Resolución de las ayudas:

– D. Raul Velasco López, técnico de la Dirección de Bienestar Social, que actuará como presidente.

– D. Iñaki Basauri Bengoa, asesor jurídico de la Dirección de Bienestar Social, que actuará como secretario.

– D. Unai Bikandi Markaida, técnico de la Dirección de Bienestar Social.

Segundo.– Ordenar la publicación, para general conocimiento, de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 5 de mayo de 2009.

La Directora de Bienestar Social,
M. ELENA AYARZA ELORRIAGA.